

Arabako Organo Jaialdiaren XL edizioak Montserrat Torrent omenduko du haren mendeurrenean

Doako bost kontzertu izango dira maiatzean eta ekainean Vitoria-Gasteizen eta Eskuernagan

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 21a. Ana del Val Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak Arabako Organo Jaialdiaren XL edizioa aurkeztu du gaur. Bost kontzertu izango dira jadanik oso finkatuta dagoen jaialdian, maiatzaren 28a eta ekainaren 30a bitartean, Vitoria-Gasteizen eta Eskuernagan.

Edizio honek izaera berezia du; izan ere, Espainian organoa berritzeko funtsezkoa izan den **Montserrat Torrent** omenduko du, haren mendeurrena dela eta. Torrent jaialdiaren protagonista zuzena izango da gainera, ekainaren 5ean Eskuernagan eskainiko duen emanaldian.

"Musikarekiko grinak ez du denbora mugarik, eta Arabako Organo Jaialdiak aukera ematen digu gure ondare artistikoaren aberastasuna zabaltzeko eta herritar guztiei hurbiltzeko", nabarmendu du prentsaurrekoan Ana del Val Kultura eta Kirol Saileko diputatuak. "Montserrat Torrenten omenaldi honek haren ibilbidea aintzatesten du, eta gure lurraldeko bazter guztietatik kultura sustatzen jarraitzeko inspirazioa ematen digu".

Egungo panoramako interpretatzaile nabarmenak biltzen ditu programak, eta askotariko ibilbidea proposatzen du, tradizioa, errepertorio historikoa eta ekimen berritzaileagoak uztartzen dituena.

Jaialdia **maiatzaren 28an** hasiko da Vitoria-Gasteizko **Karmengo elizan**, **Ángel Montero** organistarekin. Errepertorio klasikoa eta barrokoa ardatz izango duen programa bat eskainiko du, eta instrumentuaren soinu aukerak nabarmenduko ditu.

Ekainaren 4an, **Karmengo elizan** berriz ere, **Óscar Candendoren** txanda izango da, estatuko interpreterik ezagunenetako bat, Europako literatura organistikoan sakonduko duen programa batekin.

Zikloaren unerik berezienetako bat **ekainaren 5a** izango da, **Eskuernagako San Andres elizan**, non **Montserrat Torrent** omentzeko kontzertua izango baita. Torrentek berak joko du, eta edizio honetako une gogoangarrietako bat izango da.

Ekainaren 11n, **Vitoria-Gasteizko Done Petri elizan**, proposamen berezi bat izango da Monica Melcovaren eskutik; izan ere, inprobisatu egingo du, zinema mutua proiektatzen den bitartean, eta, hala, saio horrek musika eta ikusizko arteak lotuko ditu eta jaialdia esperientzia eszeniko berrietara irekiko du.

Zikloa **ekainaren 30ean** amaituko da, **Jesus Guridi Kontserbatorioan**, **Daniel Oyarzabalek** emango duen kontzertuarekin. Oyarzabal belaunaldien arteko topaketa baten ardatz izango da; izan ere, bere irakasle izandakoak eta kontserbatorioko egungo bere ikasleek ere parte hartuko dute kontzertuan, eta, hala hiru belaunaldi elkartuko dira. Proposamen paregabea da, non teklatu instrumentu ezberdinen arteko elkarrizketa izango baita eta errepertorio barrokoaren interpretazio bateratua eskainiko baitute.

Arabako Organo Jaialdia "lurraldeko musika ondarea eta ondare instrumentala zabaltzeko erakusleaho bat da, eta organo historikoei eta horiek dauden tokiei balioa ematen die", ziurtatu du Ana del Valek.

Aurreko edizioetan bezala, kontzertuetan, **pantaila bat izango da elizetan**, interpreteak gertutik

jarraitzeko, eta **sartzea doakoa** izango da, edukiera bete arte.

Informazio guztia Festival de Órgano de Álava - kulturaraba - web.araba.eus dago eskuragarri.